



I. ERANSKINA

Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak

1. oinarria. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko dirulaguntza programaren emakida arautzea II., III., IV., V., VI., VII. eta VIII eranskinetan ezarritako oinarri espezifikoei eta jarduketari eremu hauetan:

- a) II. eranskina: Lantoki eraldatzaileak, jasagarriak eta pertsonetikiko eta lurraldearekiko konpromisoa dutenak garatzea.
- b) III. eranskina: Pertsonen enpresetako parte hartzea bultzatzea.
- c) IV. eranskina: Enpresetan bizialdi osoko ikaskuntzaren bidez enplegarritasunerako gaitasunak eta kompetentziak sustatzea.
- d) V. eranskina: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta kontziliazio erantzunkidea integratzea.
- e) VI. Eranskina: Etorkizuneko enplegurako antolamendua aldatzea.
- f) VII. Eranskina: Gipuzkoan bizialdi osoko ikaskuntzarako sistemaren rola eta enplegarritasuna indartzea.
- g) VIII. eranskina: Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sortu, transferitu eta partekatzea.

2. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

2.1 Eskaerak proiektu bat edo bat baino gehiago bil ditzakete, baina horietako bakoitzak II., III., IV., V., VI., VII eta VIII. eranskinetako 3. oinarrian zehaztu diren diruz laguntzeko jarduketari alorretakoa izan behar du.

Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide bitartez entitate eskatzailearen ordezkaria dela egiaztatzen duen pertsonak sinatu behar du dirulaguntza eskaera.

2.2 Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaeraren inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren web orrian www.gipuzkoa.eus/web/ekonomia nahi duenarentzat.

2.3 Eskaera orria eta dokumentazioa, nagusiki, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren honako web orri honen bitartez aurkeztuko dira: <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>.

2.4 Dena dela, eskaera orriak eta deialdian zehazten diren gainerako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro elektronikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>).

2.5 Deialdian finkatuko da eskaerak aurkezteko epea.

2.6 Eskaera egin duten entitateak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen entitateari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste inolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

2.7 Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran.

Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eskatuko ditu.

Proiektuaren memorian ezingo da zuzenketa egin. Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak memoriaren inguruko informazio argigarria eskatu ahal izango



du behar bezala ebaluatu dezan.

2.8 Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak posta elektronikoaren bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

3. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.

3.1 Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

3.2 Dirulaguntzak emateko prozedurari ofizioz ekingo zaio, eskudun den organoak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den deialdiaren bidez.

4. oinarria. Finantzaketa.

4.1 Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko dira dirulaguntzak finantzatzeko zein aurrekontu kreditu erabiliko diren.

4.2 Dirulaguntzen zenbatekoek inolaz ere ezingo dute diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditu, ez hemen araututakoa baizik jasotzen ez dutenean, ez hemen araututakoarekin batera bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edota baliabidea jasotzen dutenean.

5. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehuneko eta zenbatekoak.

5.1 Dirulaguntza lerro bakoitzeko dirulaguntzen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoak jarduera eremu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

5.2 Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edota gerora aldatutakoa erreferentziazat hartuko da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa kalkulatzeko.

6. oinarria. Prozedura ordenatu eta bideratzeko organo eskuduna.

6.1 Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak bideratuko du prozedura.

6.2 Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, eta horretako kide izango dira honakoak:

- Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia.
- Ekonomia Sustapeneko zerbitziburua.
- Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuko teknikari bat.

-Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko idazkari teknikoak.

6.3 Batzorde horrek, nolahi ere, bidezko aholkularitza eta txosten teknikoak eska ditzake, aurkeztu diren eskaerak modu egokian balioetsi ahal izateko.

7. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena.

7.1 Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala arautzen duen indarrean dagoen foru dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari dagokio dirulaguntza emateko edo, kasua balitz, ukatzeko ebazpena ematea.

7.2 Dirulaguntza emateko, edo kasua balitz, ukatzeko ebazpena entitate eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Edozein modutara, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.3 Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilekoa da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, salbu deialdian bertan bere eragina beranduago hasiko dela aurreikusi. Gehieneko epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe igaroko balitz, interesdunak legitimatuta egongo dira beraiek egindako eskaera ezetsizat jotzeko isiltasun administratiboaz.

7.4 Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran agertzen dena baino txikiagoa denean, organo eskudunak entitate onuradunari eska diezaioteko eskaera birformulatzeko, konpromisoak



eta baldintzak eman dakioken dirulaguntzara egokitu ahal izateko.

8. oinarria. Entitate onuradunen betekizun eta konpromisoak.

8.1 Entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz espezifikoen ezartzen direnak ere.

8.2 Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.3 Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4 Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzaketari publizitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6 Zabalkunde publikoko edozein ekitaldi egin aurretik (transferentzia- eta hedapen-tailerrak egitea barne) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzari horren berri emango zaio, eta bertan parte hartzeko gonbida bidaliko da. Entitate onuradunak ekitaldi horien berri ez emateak ekar dezake emandako dirulaguntzaren %10 itzularaztea, eta errepikatuz gero, dirulaguntza osoa.

8.7 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.8 Emandako dirulaguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, entitate onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.9 Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

9. oinarria. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.

Entitate onuradunak beste batzuekin hitzartu dezakete dirulaguntzaren xedeko jardura osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jardura horri ezer gehitzen ez diotenak.

10. oinarria. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna ala bateraezintasuna.

10.1 II., III. IV., VI. eta VII. Eranskinetako dirulaguntzak ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.



10.2 V. eranskineko dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeek emandakoak badira.

10.3 VIII. Eranskineko dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, 651/2014 Erregelamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, aurreikusitako gehieneko kopurura arte.

10.4 Oinarri hauen babesean jasotako dirulaguntzaz garatutako proiektua garatzeko beste dirulaguntzaren bat eskuratu edota eskatu duen onuradunak modu fidagarrian jakinaraziko dio zirkunstantzia hori Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari.

11. oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea.

11.1 Dirulaguntza, proiektua amaitutakoan ordainduko da, 13. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.2 Hala eta guztiz ere, aurretiazko ordainketak egin ahal izango dira, berme beharrik gabe, dirulaguntza jaso duten jarduerak gauzatzeko ezinbesteko finantzaketa gisa, entitate onuradunak alde aurretik eskatuta, eta beharrezkoak justifikatuta, alderdi hauek kontuan harturik: alde batetik, programaren xedea, hau da, gizarte eta lurralde balio partekatutako sustatzea pertsonen, enpresen, ikaskuntza entitateen, gizartearen eta lurraldearen konpromisoa lerrokatzen dituen ekosistema elkarlotu batean, zeren eta programaren izaera eraldatzaileak eta esperientzialak –zeharkako emaitzetakoa, oinarrituta balio ukiezin batzuetan, zeintzuk zailak baitira epe erdian edo epe luzean zenbatzen eta egiaztatzen, eta eragina baitute pertsonengan eta lurraldean– zaildu egiten baitu finantzaketa/baliabide propioak esleitzea enpresak garatzeko (ekimen horiek, orobat, gauzatzealdi luzeak dituzte, eta horrek berekin dakar bai finantzaketa-eskuragarritasuna behar izatea programa gauzatzen bukatu aurretik, bideragarri egin dezan programa garatzea, bai, beraz, funtsez hornitu behar izatea, horiei esker hasi ahal izateko diruz lagundutako proiektuak); eta bestetik, horrez gain, kasu batzuetan, entitate onuradunen tipologia, irabazi-asmorik gabek izaten baitira, finantza-zailtasunak dituztenak dirulaguntzaren xedek garatzeko. Bada, hori guztia eta aurreko esperientzietan proiektuak gauzatu diren modua kontuan harturik egin ahal izango dira aurretiazko ordainketak. Aurrerakin horiek ordaindu ahal izango dira, baldin eta aurrekontu baliabideak badaude, eta emandako dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez badute, proiektua hasten denetik aurrera, eta behar bezala justifikatu beharko da hori.

11.3 Halaber, dirulaguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, bigarren ordainketaren aurrerakina egin ahal izango da, % 25ekoa, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zurrutu bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatze erritmoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

11.4 Salbuespen gisa, emandako dirulaguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eramanez ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Eratu beharreko abal horren zenbatekoa ordainketa aurreratuarena %3 gehituta izango da.

Abala indargabetu egingo da dirulaguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 13. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.5 Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hori dela eta, ordaindu baino lehen, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

11.6 Ordainketa aurreratu eginez gero, entitate onuradunak pasibo gisa adierazi beharko du jasotako aurrerakina enpresaren kontabilitatean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuli beharko dio aurrerakin horren itzulketa erabitzen duen ebazpenean horrela ezartzen bada.



12. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

12.1 Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

12.2 Diruz lagungarriak izango diren kostuak jarduera eremu bakoitzaren oinarri espezifikotik zehaztuko dira.

12.3. Nolanahi ere, ez dira hautagarriak izango 300 eurotik beherako kostuak.

12.4 Ez dira kostu hautagarriak izango onuradunarekin lotura duten pertsonen edo entitateen dagozkienak, salbuespen hauekin:

- Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten denean; eta

- Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuaren baimena lortzen denean, oinarri arautzaile espezifikotik adierazitako moduan.

12.5 Kostu hautagarriak aztertzean eta erabakitzean, departamentuak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak arlo horretan duen gaitasun profesionala, eskumena egotea, eta, merkatuko balioa inoiz ere gainditu gabe.

13. oinarria. Dirulaguntza zuritzea.

13.1 Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du entitate onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

13.2 Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

13.3 Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan entitate onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

- Jarduera memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzeko sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

- Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuritzeko, honako eduki hau izango duena:

- Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira.
- Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.

- Nominak eta 190 eredia, eta/edo Langileen Zerrenda Nominala-RNT barruko langile gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen eta/edo bazkide kooperatibisten kasuan, RNT beharrean, dagokion Gizarte Segurantzaren edo antzeko entitatearen ziurtagiria.

- Orduen txostenak, entitate eskatzaile, onuradun eta kontratatuetako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta.

- Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako kostu subentzionarioak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik merkaturan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik



egin ez den.

Aurkezten diren eskaintzak dirulaguntzaren justifikazioan edo, kasua bada, eta hautaketa egiteko eragimena eta ekonomia izango dira aplikatuko diren irizpideak. Proposamen ekonomikorik merkeena aukeratzeko ez denean, erabakia berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

- Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

13.4 Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

13.5 Dirulaguntza zuritzeko ezarritako dagoen epea oinarri honetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu gabe igarotzen bada, eskudun den organoak 15 eguneko epea emango dio entitate onuradunari dokumentazio hori aurkezteko. Epe gehigarri hori zurigarriak aurkeztu gabe igarotzen bada, 15. oinarrian aurreikusten diren ondorioak aplikatuko dira.

13.6 Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez dirulaguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztapenak. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarritako dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

13.7 Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza doitu egingo da. Dirulaguntza zuritzeko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo dirulaguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 15. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

14. oinarria. Ebazpena aldatzea.

14.1 Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino hilabete 1 aurretik, onuradunak eskatu ahal izango diote organo emaileari dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazko zatitza jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

14.2 Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, entitate interesdunari aurrez entzunda eta funtsak aplikatu aurretik, dirulaguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

14.3 Entitate onuradunak, dirulaguntzaren justifikazioan, aditzera ematen badu hainbat aldaketa gertatu dela dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, aldaketa horietarako beharrezkoa zen baimen administratiboaren tramitera jotzeko, eta ikusten bada aldaketa horiek kontuan hartuz gero ebazpenaren emaitza agian beste bat izango zela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onartze horrek ez badu hirugarren pertsona batzuen eskubideak kaltetzea eragiten; dena den, horrek ez du onuraduna salbuesten Gipuzkoako Lurralde Historikoen dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren arabera jar bide zaizkion zigorretatik.

15. oinarria. Ez betetzeak eta itzulketak.

15.1 Entitate onuradunak ez badu betetzen oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta aplikagarriak diren bestelako araudietan ezarritako betekizun edo baldintzetako edozein, dirulaguntza jasotzeko eskubidea erabat edo zati batez galduko du, eta dirulaguntza osorik edo zati batez itzuli beharko du, dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz batera, aipatutako Foru Arauaren 35. artikuluan xedatutakoarekin bat. Osterantzean, honetatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunak egokituko zaizkio, Foru Arau horretako 49. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik.



15.2 Ez betetzeak mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira. Horiek organo eskudunak aplikatuko ditu egindako lanen arabera eta proiektuaren osotasunari eta jasotako zenbatekoei begira.

15.3 Borondatezko itzulketatzat jotzen da entitate onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Horretarako Ekonomia Sustapeneko zerbitzuari idatzi bat bidali behar dio itzultzeko prozedura hasteko eskatuz, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolahi ere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Ordezkararen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzulketa egiteko arrazoien azalpena.

— Tokia, data eta sinadura.

Eskaera hori jaso ondoren, Ekonomia Sustapeneko zerbitzuak ordainketa gutuna bidaliko dio, itzultzeko zenbatekoa eta dagozkion berandutza interesak adieraziz.

16. oinarria. Sustapen eta finantziario publikoen eragina.

Ebaluazio-prozesu integral bat ziurtatu ahal izateko, Departamentuak, ahal den neurrian, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatuko ditu, entitate onuradunek baimena eman ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 92.1.1) artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza-eskaeraren aurreko hiru ekitaldi fiskaletan eta ondorengo bost ekitaldietan, eragiketa-bolumenari eta negozio-zifrarri, esportazio-bolumenari, % 5etik gorako akziodunen nortasuna eta zerga helbideari, 3.000 eurotik gorako entitate hornitzaileei, beste sozietate batzuetako partaidetzari (nortasuna, zerga helbidea, portzentajea), jarduera nagusiaren epigrafe fiskalari, batez besteko plantillari, plantillaren soldata-kostuari; eta, sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboari buruzko datuak.

17. oinarria. Europar Batasuna.

17.1 Oinarri arautzaile hauen II., III., IV., V. eta VI. eranskinetan dauden laguntzak 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (ikus 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala), minimis laguntzak Tratatu 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, xedatutakoa beteko dute. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa bakar bati emandako minimis laguntzak ezin dira guztira 200.000 eurotik gorakoak izan dagokion zerga ekitaldian eta aurreko bietan.

17.2 Laguntzaren eskatzaileak dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako beste «de minimis» laguntza batzuk aitortu behar ditu, erregelamenduak ezartzen duen gehieneko muga ez duela gainditzen frogatzeko.

17.3 Oinarri hauetako VII. eranskinean araututako dirulaguntzak, ikasleei zuzendutako ikaskuntza prozesuak aldatzeko proiektuak garatzen dituzten hezkuntza entitateek garatutakoak, ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. artikuluan ezarritakoari jarraituz, izan ere ez dute lehia faltsutzen edo horretarako mehatxatzen, ez dute enpresa jakin batentzat onura edo irabazirik suposatzen, ezta produkzio edo enpresa jakin batzuen alde egiten ere beste batzuen kalterako.

17.4 Oinarri hauetako VIII. Eranskineko dirulaguntzen esparrua izango da Europar Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendua (EB) (bereziki 25, artikulua), laguntza kategoria batzuk merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratzeko duen Itunaren 107 eta 108. artikulua aplikatuta.

18. oinarria. Araubide juridikoa.

Oinarriotan ezarritakoaz gain, dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta hori garatzeko Erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartua, eta dirulaguntzen alorrean aplikagarriak diren gainerako araudiak.



II. ERANSKINA

Lantoki eraldatzaileak, jasangarriak eta pertsonetikiko eta lurraldearekiko konpromisoa dutenak garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak

1. oinarria. Xedea.

Ekosistema bat eta antolaketa ingurune batzuk sustatzea, inplikazio erantzunkidea eta partekatua duten alderdi guztien artean: pertsonak (konpromisoa eta ongizatea), enpresa (konpromisoa eta lehiakortasun jasangarria) eta lurraldea (konpromisoa eta kohesio soziala).

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.
- d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitortpen erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitaterekin batek ezin bada, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkaritza gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkaritza hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak, salbu 2.1 b), c) eta d) oinarritan ezarritako entitateak

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Ingurune Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.



3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauetarako eraldaketa-proiektuak garatzea izango da:

- Prozesuak garatzeko metodologiak eta pertsonen balioa emateko sistematikak ezartzea, enpresaren helburuekin eta estrategiekin eta pertsonen antolakuntzekin koherenteak direnak (balio mapak...).
- Estrategiak eta prozesuak sustatzea, lan inguruetan eta enpleguaren denboraren banaketa arloan eraldaketako formula aurreratuen antolaketa eta enpresa aldaketa bultzatzeko.
- Aniztasunaren eta inklusibotasunaren kudeaketa txertatzea (adina, emakumeak eta gizonak, euskara, hezkuntza maila), enpresako arlo guztietan enplegarritasun maila handitzeko.
- 5.0 antolakundea eratzea, pertsonen, organizazioaren eta teknologiaren arteko oreka egokiarekin.
- Eremu pertsonala, lanekoa eta soziala trazatzeko eta bateragarri egiteko tresnak eta aukerak txertatzea.
- Langileen enplegarritasuna eta antolakundearen jasangarritasuna sustatzea.
- Enpresa estrategian eta zereginetan pertsonetikiko konpromisoa eta lurraldearekiko konpromisoa txertatzea, erantzunkidetasunean oinarrituta.
- Pertsonen kudeaketa eraldatzea.
- Egituratzeko lanaren antolaketa, lan ingurunea, lanpostuaren diseinua eta pertsonen autonomia, pertsonen eta antolakundearen premiak eta aukerak lerrokatuz.
- Antolakundearen enpleguaren kalitatea aztertzea.
- Antolakundearen eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna txertatzeko testuinguruak bultzatzea.
- Pertsona eta demokrazia ekonomikoa erdigunean jartzen dituzten antolakunde-harremanen forma berriak sustatzea.
- Antolakundearen elementu ukiezinak (jarrerak, balioak, arauak, gaitasunak) indartzea, baldin eta antolakundeak osatzen dituzten pertsonen arteko lankidetzak eta konpromisoa sustatzen badute (kultura eta proiektu partekatutakoak, konfiantza, balioak, harremanak – barnekoak eta kanpokoak –, kapital soziala...).

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Proposamenaren kalitatea (onartutako strategiaren argitasuna eta izaera eraldatzailea; zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko baliabideen metodologiaren artean koherentzia gordetzea; eta, programaren helburuekiko lerrokatze maila): 30 puntura arte.

b) Enpresan, kalitatezko enplegua lortzen zer mailatan laguntzen duen: 15 puntu arte.

c) Jasangarritasun hirukoitza hartzearekin duen harreman maila: 10 puntura arte.

d) Aurkeztutako proiektua ondo txertatzea enpresak edota entitateak pertsonetikiko edota lurraldearekiko konpromisoa sustatzeko dituen estrategia eta helburuekin: 10 puntura arte.

e) Partaideak edo hartzaileak: 10 puntura arte.



f) Lankidetzaren eta partaidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin hartutako konpromisoak, garatutako partaidetza prozesuen bitartez): 10 puntura arte.

g) Garapen jasangarriaren helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntu arte.

h) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.

i) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 35a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiari dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpres elkarte eta klusterren kasuna; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.



III. ERANSKINA

Pertsonen enpresetako parte hartzea bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoa

1. oinarria. Xedea.

Gipuzkoan pertsonetan oinarritutako enpresa eredu parte-hartzaileagoak sustatzea, enpresetan pertsonen partaidetza aktibo, eraginkor eta erantzunkide baten bitartez kalitatezko enpleguaren eta jasagarritasun hirukoitzaren oinarritzko osagai gisa.

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarten federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarten federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.
- d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoiak diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitortpen erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkaritza gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkaritza hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak, salbu 2.1 b), c) eta d) oinarritan ezarritako entitateak

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.



Diruz laguntzeko moduko jarduketak izango dira enpresetan, konpromisotik eta erantzunkidetasunetik, pertsonen partaidetza eremu hauetan ezartzeko prozesuak bultzatzen dituzten proiektuak:

- kudeaketan partaidetza
- erabaki estrategikoetan partaidetza
- emaitzetan partaidetza
- kapitalean partaidetza.
- emakumeen partaidetza erabakiak hartzeko esparruetan

Proiektu horiek proposatu eta garatu daitezke helburu hauek dituen jarduketa batetik: sendotzea eta garatzea antolakuntza-eraldaketa, lehiakortasuna eta jasangarritasuna, jarraitutasuna eta belaunaldi aldaketa, transmisioa, gizarte ekonomia, eta baita enpresa-berregituratze eta berrabiatze bereraino ere.

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Proposamenaren kalitatea (proiektuaren argitasuna eta izaera eraldatzailea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko metodologiaren artean koherentzia gordetzea eta zuzen dimentsionatuta izatea eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 40 puntura arte.

b) Partaidetzaren intentsitatea eta kalitatea garatutako barne partaidetza prozesuen bitartez: 15 puntura arte.

c) Partaideak edo hartzaileak: 15 puntura arte.

d) Aurkeztutako proiektuak enpresaren edo entitatearen estrategia eta helburuekin bat egitea, pertsonen partaidetza sustatzeko: 10 puntura arte.

e) Kalitatezko enplegua lortzeko ekarpen maila: 10 puntura arte.

f) Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.

g) Entitate eskatzaileak euskararen aldeko ekintza positiboak burutzea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 35a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.



Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpres elkarte eta klusterren kasuna; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.



IV. ERANSKINA

Enpresetan bizialdi osoko ikaskuntzaren bidez enplegarritasunerako gaitasunak eta kompetentziak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak

1. oinarria. Xedea.

Abian jartzea estrategiak, testuinguruak eta dinamikak funtsezko gaitasunak eta ahalmenak eskuratzeko eta garatzeko, bai eta antolaketari lotutako ikaskuntza eta bizitza osoko ikaskuntza ere, enpresetan pertsonen enplegarritasuna sustatzeko.

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.2 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.
- d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkariak handiena duten erakunde sindikalak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketan edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortzea, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan beratu osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenez eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak, salbu 2.1 b), c) eta d) oinarritan ezarritako entitateak

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztatpena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.



3.1 Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauetarako eraldaketa-proiektuak garatzea izango da:

- Gaitasun giltzarrien, zeharkako eta etorkizuneko garapena sustatzeko mekanismoak sortzea pertsonentzat, enpresentzat eta lurraldearentzat, ikaskuntzaren bidez testuinguru egokiak sortuz, balio bereizgarria sortzeko aukera emanez (balio aniztasunak, gaitasun-mapak, ezagutza kritikoaren mapa, garatu behar den ezagutza mota bakoitzeko estrategia...).
- Ikasten duten enpresak sustatu.
- Enpresetan ikaskuntzaren kultura bat eta ikasteko dinamikak garatzea (ikasteko ibilbideak *ad hoc* garatzea pertsona bakoitzaren arabera; auto-erabilera eta laguntza irudia bezalako tresnen bidez; ikaskuntza lantokian bultzatzea; ikasten duten erakundeak; ikasketak egiteko komunitateak; heziketa duala duten karrera planak...).
- Ikasteko gogoia eta zeharkako gaitasunak sustatzea, batez ere ikasten ikasteko gaitasuna, ekimenaren zentzua baita.
- Harreman berriak artikulatzea enpresa munduaren eta ikaskuntza munduaren artean, trantsizio handien edo megajoera sozioekonomikoen aurrean langileek beharko dituzten gaitasun berriak sustatzeko.
- Gaitasun berriak eta ikasteko ibilbide pertsonalizatuak aztertzea eta definitzea, enpresa/antolakundeetako langileak gaitzeko.
- Ikaskuntza prozesuak txertatzea, pertsonak eta enpresek gaitasunak etengabe egokitu ahal izan ditzaten etorkizuneko aldaketetara.
- Mekanismoak sortzea (orientazio profesionala, prestakuntza eskaintza...), pertsonen gaitasunak erakundeen eta enpresen beharrekin uztartu ahal izateko.
- Langileen enplegarritasuna eta antolakundeen jasangarritasuna bultzatzea eta bermatzea.

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Proposamenaren kalitatea (onartutako estrategiaren argitasuna eta izaera eraldatzailea; zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko baliabideen metodologiaren artean koherentzia gordetzea; eta, programaren helburuekiko lerrokatze maila): 30 puntura arte.
- Aurkeztutako proiektua ondo txertatzea enpresak edota entitateak pertsonetik edota lurraldearekiko konpromisoa sustatzeko dituen estrategia eta helburuekin: 15 puntura arte.
- Aurkeztutako proiektua bat etortzea estrategia sektorialekin eta/edo lurraldekoeekin: 10 puntu, gehienez.
- Jasangarritasun hirukoitza hartzearekin duen harreman maila, eta antolaketa eraldaketa kalitatezko enpleguaren ikuspuntutik: 10 puntura arte.
- Partaideak edo hartzaileak: 10 puntura arte
- Lankidetzaren eta partaidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin hartutako konpromisoak, garatutako partaidetza prozesuen bitartez): 10 puntura arte.
- Garapen jasangarriaren helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntu arte.
- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.
- Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 40a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25 / \text{Urteko ordu kopurua}$.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu



bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiari eta egonaldiari dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainari buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpres elkarte eta klusterren kasuna; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.



V. ERANSKINA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta kontzilio erantzukidea integratzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. oinarria. Xedea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra erraztuko duten eta Gipuzkoako enpresetan berdintasun hori lortzeko oztupoak ezabatuko dituzten baldintzak sustatzea, Erantzukide saretik sortutako ikaskuntzekin bat eginez

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatutako enpresak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuradunatzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste boterekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak.

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

3.1 Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eraldaketako proiektuak garatzera bideratuta daude, xede hauetarako hain zuzen:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egitea eta diseinatzea, enpresaren eta alderdi sozialaren artean negoziatu ondoren.
- Emakumeen eta gizonen arteko ordainsari berdintasuna bermatzeko tresnak eta prozedurak



txertatzea: ordainsari erregistroa, ordainsari audiotretza, enpresan eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako lanbide sailkapeneko lanpostuak baloratzeko sistema, eta langileen informazio eskubidea.

- Gizonen erantzunkidetasunaren ikuspegia zaintzan txertatzeko ekintzak bultzatzea, berdintasun planean ezarrita daudenak.
- Soldatari lotutako desberdintasunak identifikatzea, zuzeneko eta zeharkako diskriminazioak kontuan hartuta; eta desberdintasun horiei aurre egiteko eta ezabatzeko planak eta prozedurak diseinatu eta garatzea.

3.2. Berdintasun planek eta dagozkien tresnek araudi aplikagarrietan ezarritakoa bete beharko dute beti, eta, hala badagokio, baita EMAKUNDEK homologatutako erakunde batek ezarritako metodologia ere.

3.3. Gainerako kasuetan, kontratatutako laguntza teknikoak berdintasunean espezializatuta egon behar du. Gutxienez 150 orduko ikastaro baten bidez egiaztatuko da, unibertsitate edo erakunde publiko batek emana eta ziurtatua.

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Proposamenaren kalitatea (onartutako strategiaren argitasuna eta izaera eraldatzailea; zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko baliabideen metodologiaren artean koherentzia gordetzea; eta, programaren helburuekiko lerrokatze maila): 40 puntura arte.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan enpresak duen inplikazio maila: 10 puntura arte.

c) Proiektuaren definizioan eta garapenean lankidetzak eta parte hartzeak dituzten intentsitatea eta kalitatea: 10 puntura arte.

d) Partaideak edo hartzaileak: 10 puntura arte.

e) Kanpoan lortu beharreko eragina (trakzio efektua Gipuzkoako ehun sozioekonomikoan): 10 puntura arte.

f) Aurkeztutako proiektua ondo txertatzea enpresak dituen estrategia eta helburuekin: 5 puntura arte.

g) Enpresan, kalitatezko enplegua lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntu arte.

h) Garapen jasagarriaren helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntu arte.

i) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 25a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25 / \text{Urteko ordu kopurua}$.



Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsoneri dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik geroez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2. Ez dira kostu hautagarritzat hartuko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egitea eta diseinatzea, enpresaren eta alderdi sozialaren artean negoziatu ondoren, aurreikusitako ekintzen barruko langileen kostuak.

5.3 Kanpoko langileen kostuak, genero berdintasunean adituak izan behar dutenenak, hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.4 Ez dira gastu hautagarriak bidaiei eta egonaldiei dagozkion kostuak

5.5 Zeharkako kostua edo kostu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak eta zenbatekoak

6.1 Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira, indarreko legeria betetzeari buruzkoak izan ezik, horiek % 40 izango baitira.

6.2 Berdintasun planen kasuan, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 12.000 euro izango da.



VI. ERANSKINA

Etorkizuneko enplegurako antolamendua aldatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak

1. oinarria. Xedea.

Gipuzkoako enpresen eraldaketa sustatzea, etorkizuneko enpleguaren erronkek sortuko dituzten aukerak aprobetxatzeko eta, horrela, Gipuzkoako sare sozioekonomikoaren jasagarritasun hirukoitza ziurtatzeko, betiere kalitatezko enplegu handiagoa eta hobea, eta gizartearen eta lurraldearen kohesioa abiapuntu hartuta.

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.3 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.
- d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoa diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkaritza gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkaritza hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarriketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak, salbu 2.1 b), c) eta d) oinarritan ezarritako entitateak

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztatpena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.



Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eraldaketako proiektuak garatzera bideratuta daude, xede hauetarako hain zuzen:

- Enpleguaren etorkizunak enpresan izango duen eragina aztertzea, hiru dimentsio mikroetan (zer, nork, non).
- Trantsizio digitalen, ekologikoen eta demokratikoen enpleguaren konfigurazioan zer eragin izango duten identifikatzea.
- Etorkizuneko enplegurantz eboluzionatzeko estrategiak eta ekintzak diseinatzea eta planifikatzea.
- Enpleguaren eraldaketa berri bateranzko aldaketak sustatzea.
- Enpresako langileen enplegarritasuna sustatzea.
- Pertsonen enplegarritasun maila edo indizea identifikatzea.
- Enplegu beharrak planifikatzea epe ertain/luzean, jardueraren estrategia berriei dagokienez.

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskakerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (onartutako strategiaren argitasuna eta izaera eraldatzailea; zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko baliabideen metodologiaren artean koherentzia gordetzea; eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 30 puntura arte.
- b) Aurkeztutako proiektua ondo txertatzea enpresak edota entitateak pertsonetik edota lurraldearekiko konpromisoa sustatzeko dituen estrategia eta helburuekin: 15 puntura arte.
- c) Aurkeztutako proiektua sektoreko estrategiekin bat etortzea: 10 puntura arte.
- b) Jasangarritasun hirukoitza hartzearekin duen harreman maila, eta antolaketa eraldaketa kalitatezko enpleguaren ikuspuntutik: 10 puntura arte.
- c) Partaideak edo hartzaileak: 10 puntura arte.
- d) Lankidetzaren eta partaidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin hartutako konpromisoak, garatutako partaidetza prozesuen bitartez): 10 puntura arte.
- d) Garapen jasangarriaren helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntu arte.
- e) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.
- e) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 40a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsoneri dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera



aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpres elkarte eta klusterren kasuna; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.



VII. ERANSKINA

Gipuzkoan bizialdi osoko ikaskuntzarako sistemaren rola eta enplegarritasuna indartzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. oinarria. Xedea.

Bizitza osoko ikaskuntzaren aldeko testuingurua sustatzea, pertsonen ikaskuntza estrategiak eta funtsezko gaitasunak eskura ditzaten, asebetetze pertsonala, herritar aktiboak, enplegarritasuna eta gizarte kohesioa lortzeko.

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeen sareko entitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren funts publikoen bidez finantzatutakoak eta entitate horien interesak ordezkatzen dituzten taldeak eta elkarteak eta unibertsitateak. Entitateek Gipuzkoan eduki behar dute beren egoitza.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.6. oinarrian aipatzen den aitortpen erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkarik gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkarik hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.4 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.5 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.6 2.3, 2.4 eta 2.5 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentura zuzenduko baita.

2.7 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauetarako eraldaketa-proiektuak garatzea izango da:

- Alderdi hauek sustatzea eta gizarteratzea: gaitasun giltzarriak eta zeharkakoak; ikasten ikasteko gaitasunak, eta ekimenaren zentzua; zentzu kritikoa; ikasteko aukerak eta trebetasun zientifiko-teknikoak (ztiam) eta sozialak, erronka berriei eta etorkizuneko itxaropenei erantzuten dietenak.
- Pertsonak orientatzeko prozesuak hobetu eta balioztatzea, metodologiak, tresnak eta baliabideak txertatuz.
- Metodologia eta tresna berriak ezartzea, aniztasuna eta inklusibitatea hobeto kudeatu ahal izateko.
- Ikaskuntza pertsonalizatua, ikasketa kooperatiboa eta horien konbinazioa lantzeko estrategiak



txertatzea.

- Pertsonen gizarte mugikortasuna, ikaskuntza prozesuen bidez, bultzatzeko erronkak, aukerak, ahuleziak eta oztopoak identifikatzea.
- Ikaskuntza prozesuak garatzea, pertsonen beren gaitasunak etengabe egokitu ahal izan ditzaten etorkizuneko aldaketetara.
- Trantsizio demografiko, ekologiko eta digitalen inpaktuek, gaitasunei dagokienez, sortzen dituzten aukerak eta erronkak aztertzea.

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (onartutako estrategiaren argitasuna eta izaera eraldatzailea; zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko baliabideen metodologiaren artean koherentzia gordetzea; eta, programaren helburuekiko lerrokatze maila): 35 puntura arte.
- b) Aurkeztutako proiektua entitatearen estrategiarekin eta helburuekin eta sektore eta/edo lurralde mailako estrategiekin bat etortzea: 15 puntura arte.
- c) Partaideak edo hartzaileak: 15 puntura arte.
- d) Lankidetzaren eta partaidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin hartutako konpromisoak, garatutako partaidetza prozesuen bitartez): 10 puntura arte.
- e) Bizitza osoko ikaskuntzaren erronkei laguntzea: 10 puntura arte.
- f) Garapen jasangarriaren helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntu arte.
- g) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.
- h) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barneko langileen kostuak gehienez 35 euro orduko izango dira hautagarria

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \ 12 \times 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik gonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko eta
Proiektu Estrategikoetako
Departamentua

5.4 Zeharkako kostuak eta/edo kostu orokorrak kostu hautagarri gisa zenbatuko dira, justifikatu beharrik gabe, diruz lagun daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15 bakarrik.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak
Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 95 izango dira.



VIII. ERANSKINA

Gipuzkoako ekosistema sozio-ekonomikoan ezagutza sortu, transferitu eta partekatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. oinarria. Xedea.

Aldeko testuinguru bat sustatzea, ekosistema sozioekonomiko osoaren lankidetzarekin, alde batetik, kalitatezko enplegu jasangarri bat sortzeko, betiere Gipuzkoan bultzatzen ari den enpresa eta lurralde garapeneko ereduarekin lotua, eta bestetik, enplegua eta lantokiak eraldatzeko gaitasunak garatzeko, etorkizuneko aldaketei aurrea hartzea eta sortuko diren aukera guztiak aprobetxatzea ahalbidetuko dutenak, jasangarritasun hirukoitza txertatuz (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa).

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartuak dauden eta Gipuzkoan kokatuta dauden entitateak. (ZTBES)
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresa-elkarteak eta klusterrak.
- c) EAEn kokatuta dauden eta Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituzten enpresa elkarteak eta/edo klusterrak.
- d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak.
- e) Dirulaguntzaren xede diren gaitan espezializatutako zerbitzu aurreratuen enpresak, Gipuzkoan kokatuak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatueta zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.6. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkaritza gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkaritza hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.4 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.5 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.6 2.3, 2.4 eta 2.5 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentura zuzenduko baita.

2.7 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

2.8 Ezingo dira onuradun izan Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela alde aurretik erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindupean dauden enpresak; ezta krisian dauden enpresak ere.

3. oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.



3.1. Diruz lagundu daitezke jarduketak hauek:

- a) Funtsezko ikerketa proiektuak.
- b) Ikerketa industrialeko proiektuak.
- c) Garapen esperimentaleko proiektuak.
- d) Interes bereziko ekintza osagarriak: ZTBESko erakunde bat, gutxienez, barne hartzen duten ekintzak, prospektiba eta zaintza azterlanak egiteko; eta lankidetzak, transferentzia, dinamizazioa, sustapena, hedapena eta zabalkundea bultzatzeko ekintzak, funtsezko eta industria arloko ikerketa proiektuekin lotutako jardueretan.

3.2 Diruz lagundu daitezkeen jarduerak lurraldearen eraldaketa jasangarri eta erantzunkidera bideratuko dira, kalitatezko enplegua garatzea ahalbidetuko duen testuinguru eta baldintza jakin batzuk sortzeko, betiere honako gai hauetara bideratuta:

- Enpleguaren kalitatea
- Lantokien eraldaketa
- Langileen parte hartzea enpresetan

- Bizitza osoko ikaskuntza
- Enplegarritasuna eta okupazio maila
- Etorkizuneko enplegua eta enpleguaren etorkizuna
- Aldaketa digitalak, ekologikoak eta demografikoak

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna
- Enplegu jasangarria
- Enplegu gune berriak
- Enpleguaren hiru dimentsioak integratzea (pertsonala, antolakuntzako eta soziala)

3.3 651/2014 Erregelamenduko (EB) 6. artikularen arabera, oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak emango dira soilik laguntza jasoko duen enpresaren jardueran pizgarri efektua sortzen badute:

- ETE baten kasuan, laguntzak pizgarri efektua duela ulertuko da enpresak proiektuan edo jardueran lanean hasi aurretik aurkeztu badu laguntza eskaera.
- Enpresa handiei dagokienez, laguntza batek pizgarri efektua duela ulertuko da baldin eta aurreko atalean ezarritako baldintza betetzeaz gain, laguntzak emaitza hauetakoren bat edo gehiago izango dituela egiaztatzen badu:
 - o Laguntzari esker, proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen handitzea, edo
 - o Laguntzari esker, onuradunak proiektuan edo jardueran inbertituko duen zenbateko osoa nabarmen handitzea, edo
 - o Proiektuaren edo jardueraren exekuzio erritmoa nabarmen handitzea.

4. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (onartutako estrategiaren argitasuna eta izaera bereizgarria; eta zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko ekintza, baliabide eta metodologiaren artean koherentzia gordetzea eta, programaren helburuekiko lerrokatze maila): 40 puntura arte.
- b) Garatu beharreko ekintzen/ekimenen eragin potentziala, ikasitako irakaspenen eta emaitzen arabera, hau da, orokortzea eta garapen ekonomiko eta sozialerako eta kalitatezko enpleguak sortzeko eredu jasangarri batera eramatea: 20 puntura arte.



- c) Lankidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak lankidetzan lan gisa bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin, hartutako konpromisoak, baita garatutako partaidetza prozesuak ere): 15 puntura arte.
- d) Lurralde, eskualde/toki eta/edo sektore garapenaren estrategiarekin bat egitea: 10 puntura arte.
- e) Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 5 puntura arte.
- f) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.
- g) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Diruz lagungarriak izango dira:

a) Langileen kostu zuzenak, proiektuari lotutako lanetan ari diren neurrian (ikertzaileak, teknikariak, eta ikerketa lanetan aritzen diren beste langile batzuk, entitate eskatzailearen plantillakoak).

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

b) Kontratuzko ikerketak, eskuratutako ezagutzak, eta, kanpoko iturrien baimen bidez, erabateko eskumen baldintzekin, lortutako patenteek eragindako kostuak, eta baita ere proiektura bideratutako aholkularitza eta zerbitzu baliokideen kostuak.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

c) Kanpoko aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen kostua (entitate parte hartzaileetako langileak ez diren laguntzaileak, eta proiektuaren oso espezializatuak diren zatien azpikontratazioa barne), betiere kanpoko iturrii erositako, zerbitzu horiek ikerketarako soilik eta modu jarraian erabiltzeko baldin badira, ezagutza teknikoak eta ikerketa ezagutzak barne.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

d) Lan horretarako akreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko eragileen azpikontratazioaren kostuak.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

e) Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik.

f) Kostu orokorrak edo zeharkakoak: zeharkako kostu gisa konputatuko da diruz lagundu daitezkeen langileen zuzeneko kostuen % 15a.

g) Lanabesen eta materialen kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian; lanabesen eta materialen bitzitza baliagarri osoa ez bada proiekturako erabiltzen, diruz lagungarritzat hartuko dira proiektuaren



iraupenari dagozkion amortizazio kostuak, orokorrean onartutako kontabilitateko printzipioen arabera kalkulaturakoak.

h) Proiektutik zuzenean eratorritako ustiapen gastuak, material, hornidura eta antzeko produktuen kostuak barne.

5.2. Aurreko atalean aipaturako diruz lagungarriak diren gastuak ekainaren Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, 2 eta 25 artikuluetan ezartzen duenaren arabera interpretaturako dira.

6. oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

6.1. Laguntzen ehunekoak honako hauek izango dira:

- a) Funtsezko ikerketa proiektuen kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100.
- a) Ikerketa industrialaren proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.

- b) Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.

- c) Interes bereziko ekintza osagarrietan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 funtsezko ikerketa proiektuei lotuta badaude, eta % 50 ikerketa industrialeko proiektuei lotuta badaude.

6.2. Aurreko b), c) eta d) ataletan ezarritako ehunekoak % 80 gehitu ahal izango dira honelako kasuetan:

Eskatzaileak enpresa ertainak direnean % 10, eta enpresa txikiak direnean % 20.
% 15 baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- Proiektuak benetako lankidetzara behar izatea.

Enpresen artean, gutxienez bat enpresa txikia edo ertaina izatea, edo bi estatu kideetan gutxienez garatzea, edo estatu kide batean eta EEEko erabakian alderdi kontratatzaile batean; aldi berean, enpresa batek ez du, bere kabuz, diruz laguntzekoak diren kostuen % 70 baino gehiago ordainduko.

Enpresa baten eta ikertzeko eta ezagutza hedatzeko zeregina duen organismo baten edo batzuen artean, horiek beren gain hartuko dute, gutxienez, diruz laguntzekoak diren kostuen % 10, eta beraien ikerketen emaitzak argitaratzeko eskubidea izango dute.

- Proiektuaren emaitzak zabal hedatzea, hitzaldi, argitalpen, sarbide askeko datu-base, eta doako edo iturri irekiko programa informatikoen bitartez.

7. oinarria. Sustapen eta finantziario publikoen eragina.

7.1 Lagundutako eta kofinantzatutako ekintzen potentziala maximizatzeko eta, horrela, ekintza horien benetako eragina bermatzeko, prozesu eta emaitza onak eta garatutako jardunbide egokiak nahiz hobetzeko esparruak transmititzeko, baliabide publikoen erabilera mugatua errentagarri bihurtzeko modu egokian, eta etorkizuneko politika eta jardunbideetan eragina izateko; lagundutako proiektuak aprobeixamendu prozesu batean sartu ahal izango dira, bai Gipuzkoako Foru Aldundian erabakiak hartzeko ardura dutenei transmititzeko prozesu planifikatu batean, bai garatutako proiektuak lurraldeko enpresen eskura jartzeko prozesu batean, eta baita ere proiektu horien emaitzak onartzeko eta/edo aplikatzeko eskumena duten bitarteko eta azken erabiltzaileei zuzendutako dinamiketan -persona, entitate eta enpresak- eta horrela, Gipuzkoan enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzara sustatzea.

7.2 Zabalkunde publikoko edozein ekitaldi egin aurretik, horren berri emango da, eta bertan parte hartzeko gonbida bidaliko da. Entitate onuradunak ekitaldi horien berri ez emateak ekar dezake emandako dirulaguntzaren %10 itzularaztea, eta errepikatuz gero, dirulaguntza osoa.

7.3 Proiektuek argitalpenetarako sarbide irekia bermatuko dute, lortutako emaitzak hobeto ustiatu eta



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko eta
Proiektu Estrategikoetako
Departamentua

zabaltzeko, Europar Batasunaren ikerketa jarraibideekin bat etorriz.